

Amanita phalloides: basoetako hiltzaile berdea

Arxibokoa



zagu-
tuz eta errespetatuz
gero, atsegin handia
eta gozatzeko anitz
aukera ematen
dizkigu naturak.
Hauekin tartekatuz,
ordea, arris-
kuak ere nonahi
daude; perretxikoak
dira esandakoaren
lekuko.
Gizakiarentzat toxi-
koak diren 70 bat

**K. Iburguren, G. Txoperena,
I. Mintegi eta A. Murgialdai***

Toxinak

Kaltea eragiten duten konposatu kimikoen artean bi motako ziklopeptidoak berezi daitezke: *falotoxinak* eta *amatoxinak*. Bata zein bestea *Amanita virosa*, *Galeriana* edota *Lepiota* espezie batzuetan aurkitzen dira.

Toxikapena nola gertatzen den ulertu ahal izateko, honakoa hartu behar da kontuan: substantzia horiek oso termoeگونkorrak direlako ez direla egosita suntsitzen; metodo entzimakoak edo

entzima inhibitzen duenean, DNAren RNArekiko transkripzioa ere inhibitu egiten du, proteinaren sintesia eragotziz eta zelularen nekrosia eraginez. Zelula eukarioto guztiengan du eragina konposatu honek eta digestio-aparatuko epitelio, giltzurrun, pankrea, barrabil edo odoleko zelulak ditu itu nagusi. Gibelean ere kalte handiagoa eragiten du, horrek mantentzen duen sintesi proteiko handia dela medio.

Beste substantzia asko bezala,

AMANITA PHALLOIDES: BASOETAKO HILTZAILE BERDEA



gin du. Arratoien eta saguen digestio-aparatuak ez du amatoxina xurgatzen eta bena-bidez emanez gero ere, kaltea txikiagoa da ziklo entero-hepatikorik sortzen ez denez.

Arxibokoa

Klinika

Sintomatologia ager dadin, 6-12 ordu behar dira, perretxikoek eragindako toxikapen larri gehienetan bezala. Bi ordu baino lehen klinika eman ohi duten toxikape-nak, berriz, arinak izan ohi dira. Hasieran beherakoak, abdomeneko mina eta gorakoak nagusitzen dira; hauek 24 ordu inguru iraun dezakete, deshidratazio eta elektrolitoen (sodio, potasio, hidrogenoi eta abarren) alerazioak eraginez. Ondoren, eta hobekuntza-fase baten ondoren, erraietako erasoak dator. Giltzurrun, pankrea, hezur-muin eta beste organo batzuetako kaltea analisisietan ikusten bada ere, gibleko kalteak eragiten ditu problema nagusiak: odol-jarioak, hipogluzemia, koma eta % 10-30etan heriotza.

Diagnostikoa egiteko orduan sintomak eta gaixoak esaten duena garrantzitsuena izanik ere, gernuan amanitina detekta daiteke. Perretxikoetan adituak direnek ere (Gipuzkoan Aranzadi taldeko mikologoek laguntza



Amanita phalloides edo basoetako hiltzaile berdearen toxikapena oso larria izan ohi da. Perretxiko hau galgarrienetakoa eta usuenetakoa da, gainera. Kontuz, beraz, ahoratzen duzunarekin.

Toxina gernu-bidez ere kanpora daiteke; ondorioz gernu-kopurua areagotu beharko dugu bena-bidezko suero ugari eta diureti-

eragiteaz gain, nolabait ziklo entero-hepatikoa apurtzen duela dirudi. Gauzak gaizki daudenean gibel-